

Hasiberrientzako gida: nola erabili Pinterest

Aukera asko ematen ditu Pinterestek irudiak sailkatu eta gordetzeko; bereziki nabarmentzekoak dira sukaldeko errezetak eta bidaia antolatzeak eta beste erabilera komertzialagoak



2010. urteko martxoan abiarazi zuten Pinterest, irudiak eta webguneak partekatzeko aukera ematen duen gizarte-sarea. Garrantzi eta hedadura gehien, dena den, azken urte honetan lortu du. Egitura erraza eduki arren, erabilera-baldintza berezi batzuk ezartzen ditu plataforma honek, eta horien berri eman nahi du artikulu honek.

Zeri buruzkoa da gizarte-sare hau?

Informazioa modu bisuarean partekatzeko sortu zen Pinterest, eta horrexek bereizten du, hain zuzen, beste gizarte-sare batzuetatik. Ingeleseko bi hitz elkartuta eman diote izena, *Pin* eta *Interest*, eta *interesgarri dena erakutsi* izango litzateke nola-baiteko itzulpena. Plataforma honek aukera ematen du hainbat karpeta grafikotan gordetzeko eta partekatzeko erabiltzaileek Interneten aurkitu eta bereizi dituzten irudi eta bideo guztiak edo disko gogorrean bilduta dituztenak. Horiek jendearekin partekatzekoari *pin* esaten diote.

Erabiltzaileek gaika sailkatzen dituzte karpetak, eta bakoitzari buruzko irudi eta bideoak sartzen dituzte horietan. Gai bat izan daiteke dekorazioa, beste bat sukaldeko errezetak, edo bidaia-argazkiak... Era horretan, norbaitentzat inspirazio-iturri gisa balio dezake sare honek, edo eduki berri bat aurkitzeko modua eman dezake, eta beti oso era bisuarean.

Zertarako erabil daiteke?

Pinterestek aukera asko ematen ditu irudiak sailkatu eta gordetzeko. Jende askok beren zaletasunei lotuta dauden irudiak-eta gordetzeko erabiltzen du gaur egun (sukaldeko errezetak, bidaia, eta abar), eta zenbait enpresak beren produktuak eta salgaiak erakusteko baliatzen dute, beren web-orriak baino askoz

kanal ikusgarriagoa eskaintzen die-eta. Pinteresti esker, gaika sailkatuta dauden edukietan nabiga dezakegu, eta interesgarri izan daitezkeen elementu berriak aurkitu.

Nola eman izena Pinteresten?

Badira hilabete batzuk Pinterest erabiltzaile guztientzat ireki zutenetik. Izena eman nahi duenak helbide elektronikoa eman behar du, edo Facebook zein Twitter-en duen erabiltzeile izena jar dezake. Azken hori eginez gero, izena emateaz gain, plataforma horietan integratuko du Pinteresteko kontua, eta elkarrekin komunikatuta egongo dira gauza berrien bat iristen denean. Orrialdearen goiko aldean lotura bat dago hizkuntza hautatzeko (euskaraz erabiltzeko aukerarik ez du ematen oraindik).

Izena emateko orduan, Pinterestek argazki sorta bat erakusten dio erabiltzaileari, gehien atsegin dituenak edo interesgarrien iru-

ditzen zaizkionak hauta ditzan. Era horretan, erabiltzailearen hasierako orriarekin zerkusua duten edukiak erakutsiko dizkio gizarte-sareak. Aukera ematen du, halaber, Pinteresteko erabiltzaileak edo kideak norberaren kontura gehitzeko, eta, hartara, haiek egiten dituzten azken eguneratzeen berri izan dezakegu.

Zein da modurik onena Pinterest erabiltzeko?

Pinteresten web-orrian sartuta erabil daiteke gizarte-sarea, baina bada hori baino modu hobea eta errazago bat: norbere nabigatzailearen markagailu-barran "Pin it" jartzen duen botoi bat eranstea. Web-orritik barrara arrastatu behar da botoia.

Horrela eginda, ez da Pinteresten web-orrian sartu beharrik hura erabiltzeko. Interneten nabigatzen gabiltzan aldiro, irudi interesgarri bat ikusten dugun bakoitzean, gorde eta partekatu egin dezakegu nabigatzailean daukagun "Pin it" botoiari eraginda. Horrek asko errazten ditu gauzak Pinterest maiz erabiltzeko ohitura dutenentzat.

Nola antolatzen da Pinterest?

Pinterestera eranstean den irudi bakoitza pin bat izaten da, eta eranstean den *pin* bakoitzak lotura zuzena izaten du jatorrizko webgurenera; era horretan, irudi bakoitzaren jatorrira joan gaitzeko gainean klik eginda.

Beste pertsona batzuen taulatan ere egin daiteke *pin*. Ekintza horri *berpin* egitea esaten zaio. Era berean, Pinteresteko irudi bati "atsegin dut" etiketa jartzeko aukera ere ematen du. Ekintza horrekin, irudia ez da txertatzen *berpin* gisa erabiltzailearen taulan; gustuko gisa markatu baino ez du egiten. Bestalde, pribatutasun-aukera bat baino gehiago eskaintzen ditu Pinterestek, norbere irudietan *berpin*

nork egin dezakeen eta nork ez adierazteko. Erabiltzailearen profila bilatzaileetan ezkatuzeko aukera ere ematen du.

Norberak gorde eta antolatu duen edukia sailkatzeko karpetei *pinboard* edo *taulak* esaten zaie, eta erabiltzaileak editatu egin ditzake, eta nahi dituenak ezabatu. Pinterestek berak beti ekartzen ditu taula edo *pinboard* batzuk hasierako sailkapena errazteko.

Zer-nolako aukerak ematen ditu 'pin' bakoitzak?

Pinteresten irudi bat gordetzen den aldiro, beharrezkoa izaten da oinarritzko informazioa eranstea (irudiaren azalpena, adibidez) eta zer taulatan gordeko dugun hautatzea edo taula berria sortzea.

Pinterestek aukera ematen du irudiak beste gizarte-sare batzuetan partekatzeko, Facebook-en edo Twitter-en adibidez. Behin argitaratuta, editatu ere egin daiteke *pin*a informazioa eransteko edo taula jakin batean sailkatu beharrean beste batean egiteko. Gorde den irudia salgai jarritako produkturen bat bada, prezioa ere jar dakioko azalpenean, diruaren ikonoa aurrean ipinita.

Ba al dago aplikazio mugikorrik eta bestelako baliabiderik Pinterestentzat?

Pinterestek baditu aplikazio ofizialak gailu mugikorretarako, bai iOS sistema eragilearen dutenentzat eta bai Android darabiltenentzat. Era horretan, sistema eragile horiek dituzten telefono mugikorretatik eta tabletetatik zuzenean erabil daiteke Pinterest. Orri pertsonalak eta blogak erabiltzen dituztenek ere badute aukera botoiak horietan jartzeko, baita elementu grafikoak ere, HTML kode bidez. //